

KANALAK:

Gure bezeroek karrera, gradu edo oposizio bakoitzari buruz hitz egiten duten pertsonen audioak entzuteko aukera izango dute eta beraiei txat baten bidez galderak bidaltzeko , baita gurekin zuzenean hitz egitekoa ere, eta zerbait argi geratu ez bazaie, guk lagundu egingo diegu egin nahi dutena aurkitzen, inolako zalantzarik gabe .

Gure aplikazioa app-store eta playstore bidez egongo da eskuragarri, eta gure erabiltzaileek bertatik deskargatu ahal izango dute.

Gure aplikazioa sustatzeko modu desberdinen bidez egingo genuke, besteak beste eskoletan iragarkiak jartzen (posterrak) baita liburuxkak banatzen informazioarekin. Beste ideia bat da tailerrak egitea testak egiteko eskoletan eta interesatuta badaude ikasleak aplikazioa deskargatu ahal dute. Horrez gain, instagram-en iragarkiak jarriko genituzke, edota beste app popularretan.

Eta bezeroaren arretarako, gure bezeroen eskura utziko genuke arazoren bat izanez gero dei dezaketen telefono-zenbaki bat, eta baita txat bat ere gure aplikazioaren barruan. Behar izanez gero, gurekin harremanetan jar daitezke gure webgunean jarriko dugun mezu elektronikoen baten bidez.